

ZENTZUZ ELKARTEAREN BATZAR OROKORREKO AKTA

Data: 2011ko urriko 27

Non: Aixerrota Ikastetxeko Areto Nagusian

Ordua: 19.30etan

Partaide kopurua: 31 lagun

Batzarra zuzentzen duen mahaiaren aurkezpena egin ondoren [Lurdes Villar (Ikasketa Burua), Jasone Arrieta eta Juan Ramon Murua] batzarrari hasiera ematen zaio.

Juan Ramonek labur azaltzen du ZENTZUZ guraso elkarteko zuzendaritza taldea guztiz ez bada ere berri egin dela ze guraso batzuk jadanik ikastetxea utzi dutela beraz **behin-behineko** badara ere zenbait ordezkok hartu behar izan dute testigua premiazko gaiak aurrera eraman ahal izateko. Dena den ateak irekiak daude eta ongi etorria izango da parte hartu nahi duen oro (bilerak hilaren 2. astearten 19:30etan izango dira).

2010/2011ko kontuak aurkeztu ziren (aurreko zuzendaritza taldetik jasotakoak) eta ez bairik gabe onartu ziren. Jarraian 2011/2012ko ikasurterako **behin-behineko** aurrekontua aurkeztu zen (ez baitago jakiterik zehatz-mehatz ze sarrera-gastu izango diren).

Bestalde, guraso elkarteak ikasleen irteratarako ematen dituen diru laguntzen berri eman zen, diru laguntza esleipen erizpide eta baremoak (lehendik datozenak).

Jasonek jarraitzen du ZENTZUZ elkartean parte hartzeko bide eta mailak azalduz. Parte hartzea bakoitzak ahal duen neurrikoa dela azaltzen du ekimen eta behar izan mota zabala baitago. Batzarkideek kontakturako datuak ematen dituzte eta euren parte hartzeko gaitasuna.

Nolanahi ere elkarteko bileratako aktak web orrian eskuragarri jartzeko asmoa dago nahi duen guziak berri izan dezan.

ZENTZUZ elkarte eta ikastetxearekin harremanetan jartzeko bideak ere zehazten dira eta gonbidapen irekia elkarera urbiltzeko, kezka eta proiektu berriak proposatuz.

Galdera erregu puntuan batzarkide batek dislexia dun ikasleen arazoa azaltzen du eta gonbidapena luzatu gai horren inguruan lan-talde bat sortzeko. Mahaitik ere Elkartearen kezka aipatzen da eta zenbait gogoeta eta ekimen.

Azkenik OMR-Eskola Kontseiluan (eta Komisioetan) gurasoen ordezkariak eserlekuak bete beharra aipatzen da eta dauden zailtasunak azpimarratuz, guraso berrien partehartze gonbidapena luzatuz berri ere.

Besterik gabe 20:30etan batzarra amaitutaz ematen da etorri direnei eskerrak eman eta hurrengorako gonbidapenarekin.